



OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza
Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud
Dirección de Investigación e Innovación
Sanitaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Osteba

Osasun Teknologien Ebaluazioa
Evaluación de Tecnologías Sanitarias
Basque Office for Health Technology Assessment

INTERES TALDEEN EKARPENA

Ostebak, Osasun Teknologien Ebaluazioaren Zerbitzuak, segurtasuna, eraginkortasuna, irisgarritasuna eta ekitatea dagokionez, osasun-teknologiaren erabilera egokia sustatzeko xedea du, Euskal Osasun Sistema maila ezberdinetan erabakiak hartzeko beharrezko informazioa eskainiz: Osasun Politika garatzeko eta osasun prestazioak aukeratzeko eta Zerbitzu Kudeaketa eta Praktika Klinikoa hobetzeko.

Hots, helburu zehatzak honako hauek dira:

- Osasun-sisteman teknologia berriei eta aldakorrei buruzko erabakiak hartzeko prozesuan **laguntzea**.
- Teknologia kaltegarriak edo eraginkorrak ez direnak osasun sisteman sartze-arriskua **murriztea**.
- Informazioa partekatu eta teknologiari buruzko informazio garrantzitsua **ematea**.
- Kanpoan identifikatutako teknologiei buruzko **aholkuak ematea**.
- Osasun sisteman teknologiak sartze-prozesuaren eszenatokiak proposatzen **laguntzea**.
- Teknologia zaharkituak identifikatu eta desinbertsioen **irizpideak ezartzea**.

Horretarako, ahaleginak egin dira lan-metodoak optimizatzeko: literatura bilaketetan, ikerketa-diseinu desberdinen irakurketa kritikoan, ebaluazio ekonomikoan, teknologia berri, aldakorrek eta zaharkituak diren teknologiaren ebaluazioan, gomendioak ezartzean, eta frogetan oinarritutako Praktika klinikoko Gidak egitean.

Gure lanaren funtsezko zati bat, literatura zientifikoaren azterketa kritikoan oinarritzen da, eta horretarako lehen fasean gehieneko informazioa eskuratu eta irizpide esplizituak aplikatuz, kalitate egokia duena hautatu.


Nahiz eta bilaketa informazio iturri bat baino gehiago erabili, prozesu egituratu eta sistematiko baten bidez, batzuetan gera daiteke identifikatu edo berreskuratu gabeko informazioa.

Método explícito y transparente



Sistematización y rigor de los procesos (de búsqueda, de transparencia, de decisión).

MÉTODOS EXPLÍCITOS Y VERIFICABLES



Zenbait osasun teknologia egilek edo banatzailek batzuetan ohiko literatura zientifiko medietan argitaratuta ez dauden beste txosten edo informazio dute. Beste kasu batzuetan, garatzen ari diren ikasketak eta komunikatuak ez direnak edo beste azterlan aurretiazko emaitzen jakitun dira.

Orain arte, industriak informazio ematen zuen bai eskatua zenean baita jakitun zenean bere intereseko gai bati buruzko ebaluazio proiektu bat hasia zegoenean ere.

Batzuetan, beste interes taldeek ere, gomendioak garatzeko prozesuan informazio garrantzitsuak eman dituzte. Hala ere, industriaren kasuan bezala, prozedura hori ez zen egituratuta.

Beraz, beharrezkotzat jotzen dugu interes taldeekin komunikazio kanalak bermatzea, beste herrialde eta erakundeetan egin den moduan, prozesua egituratzen duen prozedura esplizitu bat, mugak zehazten eta harreman motak definitzen duenik ezarriz. Prozedura honek eragile guztien aukera berdina bermatuko luke.

Prozedura:

1. Ebaluazio proiektuak hasi aurretik, hiru hilean behin, Ostebaren weborriaren 'garapenean dauden proiektuak' atalean horien tituluak erakutsiko ditugu.
2. Gaiei buruzko informazio osagarria emateko hilabete bat izango dute erakunde, elkarte edo interes taldeek.
3. Informazio osagarri horrek ohiko iturrietan argitaratutako ikasketak eskuratzeko edo argitara gabeak diren azterlan horiek aurkitzeko baliogarria izan behar du.
4. Garapenean dauden ikerketen berri ematea eta noiz aurreikusten den emaitza horiek lortzea ere komunika daiteke. Kasu honetan, ikasketa horien emaitzak, kontuan hartuko dira beren irakurketa kritikorako eta informazio sintesia egiteko, baldin eta proiektuaren egutegiaren barne izatekotan.
5. Interesgarri izango litzateke kalitateko informazio ekonomikoa eta / edo inpaktuaren azterketarena, gaixoengan edo profesionalengan egindako ikerketa kualitatiboak, ikerketa organizatiboak, etiko, sozial eta / edo juridikoak izatea ere.
6. Ostebak dokumentazioa berrikusiko du eta irizpide esplizituak jarraituz aukeraketa egingo du, beste iturrietatik jasotako informazioarekin egiten den moduan.
7. Ebaluatzaileek aukeratutako artikuluen irakurketa kritikoa egin ondoren frogaren sintesi bat egin dute.
8. Behin proiektuak bukatu ondoren, arlo desberdinetako adituek kanpoko balorazioa egingo dute, interes-gatazkak ahal den neurrian sahistuz.
9. Bukatutako txostenak, aztertutako gaiaren arabera, interes-talde eta maila ezberdineko erabakiak hartzen dituzten profesionaleri jakinaraziko zaizkie. Beraz, erabakiak hartzerako prozesuan eskura dauden frogak eta horietan oinarritzen diren gomendioak kontuan ahal izateko.

Erreferentziak:

- Health Technology Assessment on the Net International. June 2013
<http://ihe.ca/publications/library/2013/health-technology-assessment-on-the-net-international-2013/>
- INESSS: Le cadrage des projets de l'INESSS. Rencontres avec les fabricants. Mai 2013
http://www.inesss.gc.ca/fileadmin/doc/INESSS/DocuMetho/INESSS_Metho_Cadraged_esprojets.pdf
- NICE, Guide to the methods of technology appraisal 2013.
<http://www.nice.org.uk/aboutnice/howwework/devnicetech/guidetothemethodsoftechnologyappraisal.jsp>
- NICE, Specification for manufacturer/sponsor submission for Single Technology Appraisal (STA)
http://www.nice.org.uk/aboutnice/howwework/devnicetech/technologyappraisalprocessguides/singletechnologyappraisalsprocess/specification_for_manufacturer_sponsor_submission_for_single_technology_appraisal_sta.jsp#_Toc118787567
- Procedimiento normalizado de trabajo del Comité Mixto de Evaluación de nuevos medicamentos de Andalucía, País Vasco, instituto catalán de la salud, Aragón y Navarra. Septiembre de 2011.
http://www.osakidetza.euskadi.net/contenidos/informacion/cevime_atencion_primaria/es_cevime/adjuntos/PNT_UNIFICADO_Marzo_2012.pdf
- Euroscan. Recommendations on collaboration with industry for Euroscan members. June 2013. <http://euroscan.org.uk/activities/postion-paper-on-industry/>
- Guiasalud. Propuesta para la exposición pública, previa a su publicación de las guías del programa de GPC en el SNS. <http://portal.guiasalud.es/web/guest/exposicion-publica>